



AKTA/ ACTA

Espediente zbk.	Kide Anitzeko Organoa
OSB/2025/6	Osoko bilkura
BILKURA EGITEKO DATUAK	

Deialdi mota:

Arrunta

Data:

2025eko azaroaren 25a.

Iraupena:

19:00tik 19:30ra arte.

Lekua:

Udalbatza aretoa

Lehendakaria:

ENETZ EZENARRO ARRIOLA

Idazkaria:

NEREA ETXARRI UBEDA

BILKURARA BERTARATZEA		
Identifikazio zenbakia	Izen-abizenak	Bertaratuta
72581191E	Amaia Urria Mardaraz	BAI
72579288M	Borja Rodriguez Barreras	BAI
15378752D	Dorleta Lazarobaster Arakistain	BAI
15386270Y	ENETZ EZENARRO ARRIOLA	BAI
15391365H	Nerea Isasi Bedayo	BAI
15375878X	Olatz Bizkarguenaga Iñarrairaegui	BAI
15394255X	Sonia Garcia Raposo	BAI

Idazkariak organoa balioz eratu dela egiaztatu ondoren, lehendakariak bilkurari hasiera eman dio, eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak eztabaidatu ditu.

A) ERABAKI ZATIA
Aurreko bilkuraren aktaren onarpena





Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna/Onespena/ Unanimidad/Asentimiento
------------------------	--

Ebazpena/ Resolución:

Urriaren 28ko bilkuraren akta onartzen da.

440/2025 espedientea. 2026ko Ordenantza fiskalak	
Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna/Onespena/ Unanimidad/Asentimiento

Egitateak eta zuzenbideko oinarriak/ Hechos y fundamentos de derecho:

Mendaroko Udalaren Osoko Bilkurak, El Pleno del Ayuntamiento de Mendaro 2025eko irailaren 30ean egindako ohiko Sesión Ordinaria celebrada el día 30 de bilkuran, 2026ko ekitaldiko ordenantza septiembre de 2025 adoptó acuerdo en virtud fiskalak aldatzeari buruzko 2025eko irailaren del cual resultó aprobado DICTAMEN de la 23ko Informazio Batzordearen IRIZPENA Comisión Informativa de Organización onartu zuen. celebrada el 23 de septiembre de 2025, relativo a la modificación de las Ordenanzas Fiscales del ejercicio 2026.

Erabaki hori 2025eko urriaren 7ko GAOn Expuesto al público el citado acuerdo, argitaratu zen, interesdunek espedientea habiendo sido publicado en el BOG de fecha aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak 7 de octubre de 2025, al objeto de que por aurkeztu ahal izan zitzaten hogeita hamar parte de los interesados pudieran examinar el eguneko epean. 2025eko urriaren 9an, expediente y presentar las reclamaciones que ÁNGEL JOSÉ CERVANTES MARTÍN jaunak estimen oportunas por un plazo de treinta sinatutako idazki bat aurkeztu zen, eta días, se ha presentado en fecha 09 de aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu octubre de 2025 escrito suscrito por zion behin-behinean onartutako testuari, D.ÁNGEL JOSÉ CERVANTES MARTÍN geroago esango diren arrazoiengatik. Testu presenta recurso potestativo de reposición al hori 2025-E-RC-805 zenbakiari zegokion, eta texto provisionalmente aprobado por los Mendaroko Udaleko Sarrerako Erregistro motivos que más tarde se dirá, Orokorrean jarri zen. correspondiente al nº 2025-E-RC-805 de asiento en el Registro General de Entrada del Ayuntamiento de Mendaro.

Idazkari-diruzainak batera egindako txostena Considerando el informe conjunto emitido por kontuan hartuta, besteak beste, honela dio: la Secretaria-Tesorera, en el que se pronuncia de la siguiente manera:

"... Dagokigun kasuan, errekurtsogileari ezin "...En el caso que nos ocupa no puede zaio aitortu errekurtsogilearen ordenantza reconocerse al recurrente la condición de fiskalak aldatzeko prozeduran interesdun interesado en el procedimiento de





denik, aldaketa horrek ez baitu zuzeneko eraginik errekurtsogilearen ondare-esparru juridikoan. Eta egoitza ez da kontuan hartu beharreko irizpide bakarra, lurraldetasuna ere arautzen baitu, eta, beraz, ordenantza fiskalek ere eragiten diete, nahiz eta udalerriz ezarlean bizi ez, bertan kokatutako ondasun higiezin jabe diren pertsona fisiko edo juridikoek beren lurraldean jarduerak ekonomikoak garatzen dituztenean edo udalaren zerbitzu edo jarduerak administratiboak jasotzen dituztenean, errekurtsogileak ez du inolako justifikaziorik aurkeztu interes zuzeneko izaera hori izateko... "

Organo honek bere egiten du espedientean jasota dagoen txosten hori.

Ebazpena/ Resolución:

LEHENENGOA.- ÁNGEL JOSÉ CERVANTES MARTÍN jaunak 2025eko urriaren 9an aurkeztutako alegazio-idazkia (berraztertze-errekurtsioa) ez onartzea, errekurtsogileak ez duelako legitimazio aktiborik alegazioak aurkezteko, Mendaroko Udaleko Sarrerako Erregistro Orokorrean 2025-E-RC-805 zenbakiari dagokionez. LHLTBren 17. artikulua.

Halaber, ezetsi egiten da horiek behin-behinean onartutako testuan sartzea, lehen egindako gogoeten arabera ez delako bidezkoa.

BIGARRENA. – 2025eko irailaren 30ean egindako bilkuran Udalbatzak behin-behinean

modificación de las Ordenanzas fiscales objeto del mismo ya que dicha modificación no representa un efecto directo sobre la esfera jurídica patrimonial del recurrente. Y aún entendiendo que la residencia no es el único criterio a tener en cuenta, ya que rige asimismo el de la territorialidad, de modo que también resultan afectados por las ordenanzas fiscales, aunque no vivan en el municipio impositor, las personas físicas o jurídicas que sean propietarias de bienes inmuebles radicados en el mismo desarrollen actividades económicas en su territorio o sean receptoras de servicios o actividades administrativas municipales, el recurrente no ha presentado justificación alguna para ostentar esa condición de interés directo..."

Este órgano, haciendo suyo el citado informe que consta en el expediente

PRIMERO.- Inadmitir el escrito de alegaciones (recurso de reposición) presentado en fecha 09 de octubre de 2025 suscrito por D. ÁNGEL JOSÉ CERVANTES MARTÍN al texto provisionalmente aprobado correspondiente al nº 2025-E-RC-805 de asiento en el Registro General de Entrada del Ayuntamiento de Mendaro, por carecer el recurrente/alegante de legitimación activa para presentar alegaciones de conformidad con lo dispuesto en el art. 17 del TRLHL. Desestimando asimismo la incorporación de las mismas al texto provisionalmente aprobado por resultar improcedente conforme a las consideraciones anteriormente realizadas.

SEGUNDO. – Elevar a Definitiva la aprobación de la Modificación Ordenanzas





onartutako ordenantza fiskalen aldaketa behin betikotzat jotzea.	Fiscales provisionalmente aprobada por el Pleno Municipal en sesión celebrada en fecha 30 de septiembre de 2025.
HIRUGARRENA.- Ordenantzaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Gardentasunaren Atarian ere argitaratzea, Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Legea egoki betetzeko.	TERCERO. - Publicar el texto íntegro de la Ordenanza en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Publicar asimismo en el Portal de Transparencia a efectos de dar oportuno cumplimiento a la Ley de Transparencia y Buen Gobierno.

594/2025 espedientea. Aurrekontua egin eta onartzea	
Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna/Onespena/Unanimidad/Asentimiento

Egitateak eta zuzenbideko oinarriak/ Hechos y fundamentos de derecho:

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 14.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, aurrekontua onartzea Udalaren Osoko Bilkurari dagokio.

Espedientea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan jasotako xedapenen arabera izapidetu behar da.

Aurrekontua, gainera, aurrekontu-egonkortasunaren printzipioari egokitu behar zaio, hau da, egiturazko oreka- edo superabit-egoerari.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, Aurrekontu Orokorra, ekonomia- eta aurrekontu-ekitaldi bakoitzean toki-erakundeek egin beharreko jardura ekonomikoaren zuzendaritza-programa osatzen duten erabaki guztien adierazpen formal dokumentala da, finantza- eta kontabilitate-terminoetan, eta,aldi berean, udal-baliabideen administrazio egokia kontrolatzeko tresna da.

Aurrekontu Orokorra finantza-orekaren, unibertsaltasunaren, afektaziorik ezaren eta osotasunaren printzipioak errespetatuz egin dela kontuan hartuta, aurrekontuak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren esparruan onartu eta gauzatu beharko dira, Europako araudiarekin bat etorriz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 5. artikulua xedatzen duen bezala.

Udal honen Aurrekontu Orokorra Udalaren Aurrekontuak bakarrik osatzen duela kontuan hartuta, udal antolakunde honetan ez baitago erakunde autonomorik, ezta sozietate publikorik ere.





Aurrekontu Orokorren proiektuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 6. artikuluan eskatutako dokumentazioa jasotzen du.

Aurrekontuko diru-sarreraren egoera-orria Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 7. artikuluan araututakoaren arabera egin da, kontzeptu guztiengatik hurrengo aurrekontu-ekitaldian likidatzea aurreikusten diren finantza-baliabideen zenbatekoa jasoz.

Gastuen egoera-orria Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera egin da.

Aurrekontuak ez du hasierako defizitrik, eta eragiketa arruntengatik sarrerek izaera bereko gastuak gehi zorpetzeagatik amortizazio-gastuak gainditzen dituzte.

Aurrekontuan, Aurrekontua Betearazteko Araua jasota dago, aurrekontu-arloko xedapen orokorrak Udal honen antolaketara eta zirkunstantzietara egokitzen dituena, bai eta behar bezala kudeatzeko beharrezkotzat jotzen diren beste batzuk ere.

Aurrekontu Orokorra, beraz, behar bezala osatuta dago, eranskin guztiekin eta nahitaezko dokumentazioarekin, eta Udal Idazkari - Kontuhartzaitzak aldeko txostena eman du.

Aurrekontu Orokorra onartzeko prozedurak bat etorri behar du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 14. eta 15. artikuluetan araututakoarekin.

Kontuan hartuz Aurrekontu Orokorra onartzeko erabakia Osoko Bilkurari dagokiola gehiengo soilez, eta jendaurrean jarri behar dela Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarki bidez, hamabost egun baliodunez.

Erreklamazioak aurkezteko, interesduntzat hartuko dira abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 17.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak. Erreklamazioak gehienez ere hilabeteko epean ebatzi beharko dira.

Aurrekontua behin betiko onartutzat joko da epe horretan erreklamaziorik aurkeztu ez bada.

Behin betiko onarpena abenduaren 31 baino lehen egin behar du Udalbatzak, gehiengo soilez.

Udaleko kontu-hartzaitzaren txostenekin bat etorritik, eta eztabaidatu eta bozkatu ondoren, Antolaketako (Kontu Bereziak) Informazio Batzordeak, aldeko irizpena eman eta Udalbatzari honako hau helarazi dio:

Ebazpena/ Resolución:





Lehenengoa.- Aurrekontuarekin batera doan 2026ko ekitaldirako aurrekontu orokorraren proiektua onartzea. Honako agiri hauek dituena:

A) Azalpen-memoria bat, aurrekontu orokorraren edukiari buruzkoa. Bertan, aurrekoen aldean aurrekontuek egiten dituzten aldaketak aztertuko dira, aldaketa esanguratsuenak azpimarratuz, bai eta aurrekontu bakoitzaren eta Aurrekontuak Betearazteko Arauan jasotako gainerako neurrien edukia ere.

B) Tokiko Sektore Publikoaren aurrekontu finkatua.

C) Aurrekontua Betearazteko Araua; besteak beste, bermeak emateko eta zorpetzeko gehieneko mugak jasotzen dituena, eta erakunde bakoitzari aplikatuko zaizkiona.

D) Txosten ekonomiko-finantzarioa, aurreikusitako diru-sarrerak eta kreditu-eragiketak ebaluatzeko erabilitako oinarriak, eska daitezkeen obligazioei eta zerbitzuen funtzionamendu-gastuei aurre egiteko kredituen nahikotasuna eta, ondorioz, aurrekontuaren benetako nibelazioa azaltzen dituena. Era berean, txostenak aztertuko du, modu independentean, konpromiso-kredituak finantzatzeko udal-baliabideen nahikotasuna.

Bigarrena.- Udalaren aurrekontu-proiektua onartzea, honako hauek jasotzen dituena:

1.- Ekitaldian zehar likidatu beharreko eskubide ekonomikoen gutxi gorabeherako diru-sarreraren egoera-orria.

2.- Ordainketa- eta konpromiso-betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren kredituen gastuen egoera-orria.

3.- Aurrekontuaren edukiari eta aurrekoarekin alderatuta aurkezten dituen aldaketa nagusiei buruzko azalpen-memoria, bai eta aurrekontua egiteko hartutako irizpideei buruzkoa ere.

4.- Onartutako eta erabilitako konpromiso-kredituen eranskina. Erakundeak likidatu gabeko aurrekontuetarako aurrekontua aurkezteko datan izaera horrekin erabilitakoak jasotzen ditu, dagozkien urteetarako bereizita, eta egun berean indarrean dauden kontsignazio guztiak jasotzen ditu.

5.- Ekitaldian zehar egin beharreko inbertsioen eranskina.

6.- Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien eranskina, aurrekontuan kapitulu horietarako aurreikusitako gastuak eta diru-laguntzen kontzeptuak arautzeko prozedura zehaztuta.

7.- Langileen eranskina, aurrekontu-plantilla osatzen duten lanpostuen zerrendarekin, 11/2022 legea, abenduaren 1ekoa, euskal enplegu publikoari buruzkoa eta hura garatzeko xedapenen arabera egina.

Hirugarrena.- Erabakia jendaurrean jartzea, 15 egun balioduneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean iragarkiak jarriz, interesdunek





erreklamazioak aurkez ditzaten.

Laugarrena.- Aurrekontua behin betiko onartutzat joko da jendaurrean jartzeko epean erreklamaziorik aurkezten ez bada

590/2025 espedientea. Lanbide, Elgoibarko hitzarmena	
Alde/ Favorable	Bozketaren mota/ Tipo de votación: Ahobatezotasuna/Onespena/Unanimidad/Asentimiento

Egitateak eta zuzenbideko oinarriak/ Hechos y fundamentos de derecho:

LANBIDEK, ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEKO ZERBITZUAK, ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEKO DIRUZ LAGUNTZEN DITUEN PROIEKTUAK EXEKUTATZEKO, ELGOIBARKO, SORALUZEKO, MENDAROKO, DEBAKO ETA MUTRIKUKO UDALEN ARTEAN EGITEN DEN GESTIOA, DEBABARRENEKO LURRALDE EREMUAREN ESKU UZTEKO HITZARMENA.-

2025eko uztailaren 31ko EHAAn, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zuzendari Nagusiak 2025eko uztailaren 15ean eman zuen Ebazpena argitaratu zen. Horren bidez argitaratzen da enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2025eko ekitaldiko laguntzen deialdia.

Deialdiaren helburua Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeei laguntzak ematea da, jardueraren xede den lurraldearen garapen sozioekonomikoa bultzatzeko eta modernizatzeko asmotan, enplegua sortzeko proiektuak martxan jartzeko, horien bidez Euskadiko eskualde guztietan modu orekatuan enplegu-aukerak sortzeko, 2025erako Enpleguaren Euskal Estrategiarekin eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioarekin bat etorritik. 2025eko uztailaren 15eko Ebazpenaren II. ERANSKINEAN diruz lagungarria den gehieneko aurrekontua ezartzen da eskualde bakoitzarentzat.

Eskualdeko Enplegu Planen deialdi horri jarraiki, Debabarreneko lurralde eremuko partaide gisa ageri direnak ondorengo udalak dira: Deba, Mutriku, Mendaro, Elgoibar, Eibar eta Soralue-Placencia de las Armas. Dirulaguntza honen kudeaketa koordinatua egiteko Elgoibarko udalak eskaini duen prestutasuna kontuan izanda

Ebazpena/ Resolución:

LEHENENGOA.- Lanbidek, enplegua eta tokiko garapena sustatzeko zerbitzuak, enplegua eta tokiko garapena sustatzeko diruz laguntzen dituen proiektuak exekutatzeko, Elgoibarko Udalari mandatua ematea ONARTZEA, berari dagozkion ekintzak era egokian burutzeko beharrezkoa den gestioaz arduratzeko, eta ekintza horiek gauzatzeko, legez beharrezkoak diren tramiteak egiteko.

Alkatetzari ahalmena ematea plangintzako irizpideak eta helburuak finkatu arte gainerako





izapideekin jarraitzeko

583/2025 espedientea. Menpeko erakundeak (sortzea, aldatzea edo azkentzea)	
Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna/Onespena/Unanimidad/Asentimiento

Egitateak eta zuzenbideko oinarriak/ Hechos y fundamentos de derecho:

<p>Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkarte, S.A. 1985eko urriaren 23an eratu zen eskritura publiko bidez, eta eskritura horren xedea da Debabarrena eta bertan parte hartzen duten udalerriak sustatu eta sustatzeko jarduera interesgarri guztiak egitea. Mendaroko udalerria da horietako bat.</p> <p>2025eko urriaren 9an, Administrazio Kontseiluak aho batez erabaki zuen DEBEGESA bitarteko propio pertsonifikatua gisa deklaratzeko, eta erakundearen helburu sozialera mugatzea bere ekintza-erradioa, estatutuetako 2. artikulua araberak honako hau baita: "Sozietatearen xedea da Debabarrena eta bere udalerriak sustatzeko eta sustatzeko interesgarriak diren jarduketak guztiak egitea.</p> <p>Enpresa-, negozio-, esperimendu- eta ikerketa-sustapena, merkataritza-jarduerak eta kontratuak negoziatzekoak, eta ikerketa eta garapen teknologikoa erakunde bidez sustatzea. Sozietatearen xedea izango da, halaber, hiri-birgaitze integralari dagokiona. Birgaitze-plan bereziak egingo dira eskualde horretako birgaitze-eremu integratuetan, bai eta degradatutako eremuak birgaitzeko edo berritzeko programa estrategikoak ere."</p> <p>Beraz, araudia aztertuta eta idazkaritzak</p>	<p>Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkarte, S.A, se constituyó mediante escritura pública el 23 de octubre de 1985, siendo el objeto de la misma, la realización de cuantas actuaciones sean de interés para el fomento y promoción del bajo Deba y los municipios participantes en la misma, siendo el municipio de Mendaro uno de ellos.</p> <p>Con fecha 9 de octubre de 2025, el Consejo de Administración por unanimidad acuerda impulsar la declaración de DEBEGESA como medio propio personificado, ciñendo su radio de acción al objeto social de la entidad, que a tenor de artículo 2 de los estatutos es el siguiente: "La sociedad tiene por objeto social la realización de cuantas actuaciones sean de interés para el fomento y promoción del Bajo Deba y sus municipios.</p> <p>Promoción empresarial, de negocios, experimentales y de investigación, así como actividades mercantiles y de negociación de contratos, fomento institucional de investigación y desarrollo tecnológico. Será también objeto social, lo concerniente a la rehabilitación urbana integral que viene determinada por la realización de los respectivos planes especiales de rehabilitación en las áreas de rehabilitación integradas de la mencionada comarca y los programas estratégicos de rehabilitación o renovación de áreas degradadas."</p> <p>Por lo tanto, del estudio de la normativa y</p>
---	---





emandako txostena bere eginda, argi eta garbi ondorioztatzen da DEBEGESAK betetzen dituela araudia osatzen duten udalen bitarteko propio pertsonifikatutzat jotzeko eskatzen diren baldintzak, eta enkarguak erabiltzeko aukera aitortzen zaie, egoera jakin batzuetan, udalek ez dezaten hirugarrenekin kontraturik egin behar izan obrak egiteko, zerbitzuak emateko, horniduretarako, etab.

haciendo suyo el informe emitido por secretaría, se desprende claramente que DEBEGESA cumple con los requisitos requeridos para su consideración como Medio Propio Personificado de los ayuntamientos integrantes de la misma, y reconocerles la posibilidad de uso de los encargos para posibilitar, en determinadas circunstancias, que los ayuntamientos no tengan que acudir a la contratación con terceros para la realización de obras, prestación de servicios, suministros, etc.

Ebazpena/ Resolución:

LEHENENGOA. Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkartea, S.A. (DEBEGESA) Mendaroko Udalaren berezko bitarteko deklarazioari onespena ematea.

BIGARRENA. DEBEGESA erakundeko organo eskudunari eskatzea ahalik eta lasterren izapidetu ditzala estatutuak aldatzeko eta izena aldatzeko izapideak, «Berezko bitartekoa» izena barne.

HIRUGARRENA. Estatutuen aldaketa izapidetu ondoren, Kontratazio Plataforman argitaratu beharko da entitatea udalaren berezko bitarteko gisa kalifikatuta dagoela, SPKLren 32.6 artikulua a) idatz-zatian adierazitako edukiarekin.

LAUGARRENA. Aldaketa hori Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakunde Inbentarioan ere inskribatu beharko da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 83.1 artikulua arabera».

PRIMERO. Aprobar la declaración como medio propio del Ayuntamiento de Mendaro a la entidad Deba Beheko Garapen Ekonomikorako Elkartea, S.A (DEBEGESA).

SEGUNDO. Instar al órgano competente de la entidad DEBEGESA a que se tramite a la mayor brevedad la modificación de los Estatutos y el cambio de denominación, incluyendo la denominación de «Medio Propio».

TERCERO. Tramitada la modificación de los Estatutos, se deberá publicar en la Plataforma de Contratación la calificación de la entidad como medio propio del Ayuntamiento con el contenido que se indica en el apartado a) del artículo 32.6 de la LCSP.

CUARTO. Dicho cambio también deberá inscribirse en el Inventario de Entidades del Sector Público Estatal, Autonómico y Local, de conformidad con el artículo 83.1 de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público».

609/2025 espedientea. Erakunde edo instituzioetan parte hartzea





Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna/Onespena/ Unanimidad/Asentimiento
------------------------	--

Ebazpena/ Resolución:

UEMAKO bigarren ordezkaria aldatzea erabakitzen da.

Ahobatez onartzen da UEMAN Mendarok daukan ordezkaritza honakoa izatea:

- Dorleta Lazarobaster. Ordezkoa Borja Rodriguez.
- Enetz Ezenarro. Ordezkoa Nerea Isasi.

Azaroak 25 emakumeen indarkeriaren aurkako egunaren adierazpena	
Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna/Onespena/ Unanimidad/Asentimiento

Ebazpena/ Resolución:

AZAROAK 25eko ADIERAZPENA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Indarkeria Matxista Ezabatzeko Nazioarteko Eguna dela eta, gogora ekarri nahi dugu Indarkeria matxistak beldurrezko eta lotsazko ingurunea sortzen duela, indarkeria jasaten dutenak bakartzeko eta isilarazteko joera du, eta biktimagileen zigorgabetasun- sentrazioa areagotzen du. Izan ere, sarerik ez izateagatik eta komunitatean sustraituta ez egoteagatik, egoera horiek areagotu egiten dira isolatuago egon daitezkeen emakumeen artean, besteak beste, adineko emakumeak, landa-ingurune sakabanatuetan daudenak, desgaitasuna duten emakumeak, emakume atzeritarrak eta bestelako baldintza bereizleak dituztenak.

KOMUNITATEAK beste pertsona batzuekin konektatzen gaitu, eta babes-loturak garatzea eta narratiba komunak sortzea ahalbidetzen du. Horregatik, komunitateak emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzen lagun dezake, eta berdintasunean oinarritutako harreman-inguruneak sortu, diskriminazioaren eta indarkeriaren adierazpenek tokirik izan gabe. Auzokide, lagun edo kuadrillen arteko harreman estuak goiz ohartaraz dezake indarkeria-egoera gertatzen ari dela.

Komunitate feministak, hurbiltasunetik eta sororitatetik, indarkeria jasaten ari diren emakumeak gorputzez babes ditzake, baita enpatia adierazi eta gertuko bide-laguntza ere eskaini. Halaber, jasandako indarkeria matxistari aurre egiten eta onera etortzen lagun dezake, eta egoera horietan bere erritmoak eta erabakiak errespetatu ditzake.

Tokiko komunitateak biktimen erreparazioa babes dezake. Horretarako, eragindako kaltea aitortu eta indarkeria matxista salatu dezake, eta publikoki biktimarekiko eta haren ingurukoekiko elkartasuna eta gaitzespena adierazi.

Udalok erantzukizun zuzena dugu, komunitateak sustatzeko non auzotarrak, taldeak eta koadrilak indarkeria matxistaren aurrean erne egongo diren, eta indarkeria matxista





pairatzen dutenak hartu, integratu eta babestuko duen bizitza komunitarioa bultzatzeko.

Era berean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimezako komunitate erreparatzaileak sustatzeko erantzukizuna dugu.

Horregatik, Mendaroko Udalak honako jarduera hauek garatzeko konpromisoa hartu du:

Jarduketa posibleak:

- Hurbiltasun-sare lokalak indartzea: topaguneak, komunitate-jarduerak eta tokiko elkarten bizitasuna zaindu, pertsona guztiak eta, bereziki, emakume eta neskarik zaugarrienak konektatzeko.
- Kanpotik iristen diren pertsonentzako harrera- eta integrazio-programak garatzea, tokiko komunitatearekin lotzea ahalbidetzeko, bereziki emakume eta nesken arreta jarritz.
- Hezkuntza-, osasun-, kultura- eta aisialdi-inguruneetan laguntza-sareak sustatzea, zerbitzu publikoak taldeekin, elkarrekin eta berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokaren esparruan elkarri laguntzeko ekimenekin konektatzeko.
- Sentsibilizazio- eta kontzientziazio-kanpainak garatzea, emakumeen aurkako indarkeria matxista hutsaltzen edo legitimatzen duten diskurtsoak eta jarrerak desaktibatuzko, bereziki konplizitate matxisten inguruetan.
- Indarkeria matxistako kasuen aurrean herritarren mobilizazioa sustatzea, indarkeria gaitzesteko eta biktimizekiko elkartasuna adierazteko.
- Kanpaina eta kuadrillekin aliantzak garatzea sexuen arteko harreman osasungarri eta bidezko kodeak sortzeko, dibertsitate osoan, kode matxistak eta misoginoak hausteko.
- Tokiko emakumeen mugimenduei eta mugimendu feministari laguntzea eta haiekin koordinatzea, indarkeria matxistaren biktime diren emakumeak haien borrokan babesa emateko jarduerak garatzeko.

Abenduak 3 euskararen egunaren adierazpena	
Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatez kotasuna/Onespena/ Unanimidad/Asentimiento

Ebazpena/ Resolución:

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2025

Euskara ZUGAN, NIGAN, GUGAN

Euskarak bide luzea egin du.

Luzeena, agian, Europa zaharrean.

Eta hala ere, bere bidea ez da amaitu: bizirik dirau.

Mendaroko Udala

Herriko enparantza, 1, Mendaro. 20850 (Gipuzkoa). Tfnoa. 943033282. Fax: 943033281





Zein da sekretua?

Zein indar, zein ilusio izan da gure hizkuntza gaur arte ekarri duena?

Milaka urte, milaka pertsona, milaka amets eta ahalegin.

Norbanakoen indar isilak, belaunaldiz belaunaldi, gure hizkuntza zaharra gazte bihurtu du.

Debekuen aurrean, eutsi genuen.

Isilaraztearen aurrean, hitza berreskuratu genuen.

Euskara, gure zaharren hizkuntza izatetik, gazteen hizkuntza izatera pasa da.

Argi-izpi berri hauekin marraztuko dugu etorkizuna.

Euskararentzat aukera berriak zabalik daude.

Hazi eta berritu dadin lanean ari gara.

Bizi garen mundu nahasi eta aldakor honek, ordea, zaildu egiten du komunitatearen indarra eta zentzua.

Hiztun-komunitatea ez da berez mantentzen.

Zaindu, elikatu eta piztu egin behar da.

Horregatik, unea da.

Euskararen erabilerarako eta transmisiorako bide berriak jorrazteko unea.

Aisialditik lan munduraino, eta norbanakotik erakundeetaraino, euskaraz hitz egiteko gune erosoak sortzeko unea.

Belaunaldi berrien artean euskararen transmisioa indartzeko unea.

Euskararen ezagutza zabaltzeko unea.

Erabilera sustatzen duten ingurune biziak zaindu eta berriak irabazteko unea.

Indarrak bildu eta urrats berriak eta ausartak egiteko unea.

Asko dugu egiteko, badugu zer hobetu.

Eta prest gaude!

Euskaraz dakiten eta oraindik ez dakitenekin batera.

Elkarrekin egiteko.

Eskerrik beroena urte luzez euskara bizi, euskaraz bizi eta biziarazi dutenei.

Zuen lan isilak ekarri gaitu honaino, eta etorkizunak oraindik ere zuen beharra du.

Pozetik, atxikimendutik, ilusioz eta emozio positiboetatik abiatuta, euskarari distira emateko,





Eta euskara guztion hizkuntza bihurtzeko.

Euskara da!

Guztionezat da.

Euskara ezagutzen ez dutenentzat ere, ate berri bat da.

Batzen gaituen hizkuntza bat.

Elkar ulertzeko gonbidapen bat.

Mundu berri bat irekitzen zaio euskarari.

Eta euskararekin, edonori.

Ate berriak zabaldu eta lur zoru berriak landuko ditugu, denon artean.

Hazi emankorrakoak ditugu lur berria ereiteko.

Atzeak erakuts diezagula aurrea nola dantzatu.

Norberetik hasita egingo dugu bidea.

Guztion baitan baitago euskararen jautzia.

Zugan, nigan, gugan.

Azpiko hau udal plenoetarako bakarrik:

2025eko Euskararen egunean, gugandik abiatuta, ondorengo konpromiso hauek hartzen ditu XXXX(e)ko Udalak:

-Udal politiketan euskara erdigunean jartzea.

-Hizkuntza politikan atzera urratsik ez egitea.

-Euskarak behar duen jautzian udalari dagokiona egitea, eta horretarako bitartekoak jartzea.

Azaroaren 20, haurtzaroaren nazioarteko eguna	
Alde/ Favorable	Bozketa mota/ Tipo de votación: Ahobatezkotasuna/Onespena/ Unanimidad/Asentimiento

Ebazpena/ Resolución:

Oinherri Elkarteak Haurtzaroaren Nazioarteko eguna probestu nahi du, haurtzaroaren aldeko manifestua kaleratzeko eta bertan jasotzen diren ideiekin bat egiten duen oro, bertara batzeko gonbidapena egiten du.

1. Haurtzaroa historikoki eta kulturalki etengabe aldatzen den eraikuntza soziala da. Egun, bi iruditegien artean kokatzen da: bata, tradizionala, menpekotasuna nabarmentzen duena; bestea, garaikidea, haurren eskubideak eta erantzukizunak aitortzen dituena.





Lehenengoaren ondorio nabarmena da egun haurrak gehiegi babesteko eta kontrolatzeko joera. Bigarrenak, aldiz, haurrak gaitasundun eta eskubidedun subjektu bilakatzen ditu.

Paradigma berri horrekin bat egiten dugu, haurra subjektu politiko soziala delako orain eta hemen, ez etorkizunean soilik.

2. Haurra komunitatearentzat jakintza eta trebetasun esanguratsuak dituen subjektua dela aldarrikatu nahi dugu eta ondorioz, bere parte hartzea komunitatearen eguneroko erabakietan txertatzea dagokigula.

3. Parte-hartze hori haurtzaroaren ezaugarrietara egokitzeko giltza topatu nahi dugu, haurrek mundua ulertzeko eta bizitzeko modu propioak dituztelako. Helburuak, beraz, ezin du izan haurrak helduon moduetan parte hartzen jartzea, baizik eta helduak haurren kulturaz jabetzea. Horrek, halaber, helduzentrismoa interpelatzen garamatza.

Haurrekin benetako parte-hartzea sustatzea nahi badugu, desikaste prozesu bat eskatzen digu, besteak beste, heldu moduan jendarte honetan gorpuzten dugun botereaz kontzientzia hartzeko, helduzentrismoa zalantzan jartzeko eta sor ditzakegun zapalkuntza egoerak identifikatzeko.

4. Haurrak adina haurtzaro existitzen direla aldarrikatu nahi dugu, haurtzaroa ere aldagai ezberdinek zeharkatzen dutelako, besteak beste, jatorriak, klase sozialak, generoak, desgaitasunak etabar luze bat. Haurtzaro guzti horien oinarritzko beharrak asetzea bermatuko duten eta denak aske bizitzeko aukera izango duten herria izan nahi dugu.

5. Haurtzaroaren garapen on bat eman dadin ezinbestekoak diren lau aldagai kontuan hartu nahi ditugu herri moduan: herria haurren jolaserako espazioa bihurtuz, non jolasteko denbora ahalbidetuko den, haurren autonomia sustatuz, elkar topatzeko espazioak eraikiz eta birnaturalizazioan sakonduz.

B) KONTROL-JARDUERA
Alkatetzaren ebazpenak

Alkatetza ebazpenen berri ematen da.

C) GALDE-ESKEAK
Ez dago gairik/ No hay asuntos

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO
ELECTRÓNICAMENTE**

